


ESKARI AGREGATUAREN ETA ESKAINTZA AGREGATUAREN EREDUA

1. Eskari agregatua
2. Eskaintza agregatua
3. Oreka makroekonomikoa

Ardatz horizontalean (X) honakoa jarriko dugu: ekonomia batean zenbat ekoizten den edo zenbat eskatzen den (ondasun eta zerbitzu guztiak kontuan hartuta).

Ardatz bertikalean (Y) honakoa jarriko dugu: ondasun eta zerbitzu guztien prezioak ordezkatzeko dituen indizea.



Eskari agregatua

Eskari agregatua (EA): ekonomia-eragileek (familiek, enpresek, sektore publikoak eta kanpo-sektoreak) EROSI nahi dituzten eta gure herrialdearen barnean EKOIZTEN diren amaierako ondasun eta zerbitzuen kantitatea.

Beraz, prezio maila baterako, eskari agregatua (DA) hau izango da:

$$DA = C + I + G + X$$

C= kontsumoa

I= inbertsioa

G= gastu publikoa

X= esportazio garbiak → esportazioak – inportazioak


Gure herriaren muga fisikoen barnean ekoizten denari barne produktu gordina (BPG) deitzen badiogu, orduan berdintasun hau daukagu:

DA = KONTSUMITZEN DUGUNA (kanpoko zein barrukoa) + INBERTSIORAKO ERABILTZEN DUGUNA (kanpoko zein barrukoa) + GOBERNUAK EROSTEN DUENA (kanpoko zein barrukoa) + ESORTATZEN DUGUNA - INPORTATZEN DUGUNA = GURE HERRIAN EKOIZTEN DUGUNA →BPG

Eskari agregatua hainbat faktoreren menpekoa da.

Garrantzitsuenak honako hauek:

- prezio-maila
- itzarobideak
- zerga-politika eta diru-politika
- munduko ekonomia



EA kurbak zer adierazten duen hobeto ulertzeko, beharrezkoa zaigu jakitea zergatik daukan malda negatiboa, batetik, eta zein faktorek mugiarazten duten, bestetik.

EA kurbak zergatik duen malda negatiboa

1.ABERASTASUNAREN ERAGINA

Prezioek behera egiten badute aberastasun erreala handitu egingo da. Izan ere, diruaren eros-ahalmena handiagoa izango da.

Ondorioz, gizabanakoak aberatsago sentituko dira, gehiago gastatu nahi izango dute, eta ekonomiako eskari agregatua handitu egingo da.


Kontrakoa gertatuko litzateke, prezioak igoko balira: eskari agregatua murriztu egingo litzateke.

2. NAZIOARTEKO MERKATARITZAREN ERAGINA

Ekonomia ireki batean, herrialde barneko prezio-maila behar bezala, barneko ondasun eta zerbitzuak erlatiboki merkeagoak izango dira atzerrikoak baino, eta, ondorioz, esportazioak ugaltu eta inportazioak gutxitu egingo dira.

Horietako faktore nagusiak honako hauek dira:

- 1) itxarobideak
- 2) zerga-politika eta diru-politika
- 3) munduko ekonomia



Eskari agregatuaren igoera:	Eskari agregatuaren murrizketa:
<ol style="list-style-type: none"> 1) Itxarobide baikorrak 2) Zerga-politika edo diru-politika hedatzailea 3) Truke-tasaren jaitsiera (gure diruaren balioa galtzea) edo nazioarteko herrialdeen Y-ren hazkundera 	<ol style="list-style-type: none"> 1) Itxarobide ezkorrak 2) Zerga-politika edo diru-politika murriztailea 3) Truke-tasaren igoera (gure diruaren balioa irabaztea) edo nazioarteko herrialdeen Y-ren beherakada.

Makroekonomian prezio guztiak jaistea ezinezkoa da

Eskaintza agregatua

Eskaintza agregatuaren kurbak (SA kurbak) honakoa adierazten du: ekonomiako ondasun eta zerbitzuen prezio-mailaren (P-ren) eta herrialdeko enpresa guztiek ekoiztutako BPG errealaren (Y-ren) arteko harremana.

-Eskari agregatuaren (EA) kurbak beti malda negatiboa du

- Eskaintza agregatuaren (SA) kurbak bestelako itxura bat izango du ekonomian aintzat hartzen dugun epearen (epe labur edo epe luzearen) arabera.

Bereizketa hori egiteko, aurrez, bi kontzeptu hauek ulertu behar ditugu:

- produktzio agregatuaren funtzioa
- enplegu osoko produktzio-maila,

Enplegu osoko produkzio-maila (YEO)

YEO ekonomiako produkzio-ahalmen osoa erabiliz ekoizten den guztia da.

- Epe labur makroekonomikoa
- Epe luze makroekonomikoa: produkzio ahalmen osoa erabiltzen bada

ESKAINNTZA AGREGATUAREN KURBA

- EPE LUZEAN: Malda positiboko kurba da
- EPE LABURREAN: Malda bertikala da

Epe laburrean, kapitala (K), lana (L), eta teknologia (T) finkoak dira, ez dira aldatzen, iraganean hartutako erabakien arabera baitira.


Ondorio moduan, lan-merkatuko egoeraren arabera (enplegu osoa edo ez), eskaintza agregatuaren bi kurba bereizten dira:

- Epe luzeko eskaintza agregatuaren kurba edo klasikoa (SA epe luz.).
- Epe laburreko eskaintza agregatuaren kurba edo keynestarra (SA epe lab.).

Epe luzeko eskaintza agregatuaren kurba (edo eskaintza agregatu klasikoa)

Adierazten du zein den ekoizten eta eskaintzen den BPG errealearen kantitateak (Y-k) eta prezio-mailak (P-k) duten harremana epe luzean, hau da, BPG erreala eta BPG potentziala bat datozenean. Ez dago prezioen menpe.

Laburpen gisa, honela egin genezake epe luzeko eta epe laburreko eskaintza agregatuaren kurben arteko bereizketa:



Prezioak igotzean gehiago ekoiztu nahi dute enpresek

Eskaintza agregatuaren kurbaren lekualdatzeak

Eskaintza agregatuaren kurba lekualdatu egingo da, produkzio-mailari eragiten dion faktoreen bat —prezio-maila izan ezik— aldatzen denean. Faktore horiek bi multzotan sailka ditzakegu:

- BPG potentziala edo epe luzekoa aldatzen duten faktoreak
- Enpresen kostuak aldatzen dituzten faktoreak

BPG potentziala edo epe luzekoa aldatzen duten faktoreak


BPG potentziala (YEO) hiru arrazoiengatik alda daiteke:

- ▶ Enplegu osoko lan kantitatea alda daitekeelako (ΔLEO).
- ▶ Kapital kantitatea alda daitekeelako (ΔK).
- ▶ Aurrerapen teknologikoa gerta daitekeelako (ΔT).

Kasu horietan, lekualdatu egiten dira bai epe luzeko eskaintza agregatuaren kurba, bai epe laburreko eskaintza agregatuaren kurba.

*Kostuak aldatzean epe laburreko eskaintza baino ez da aldatuko. Kostuak handituta epe laburreko eskaintza murriztu.

Adibidez, $L_{EO} \uparrow$, $K \uparrow$ edota $T \uparrow$ gertatuz gero...




Enpresen kostuak aldatzen dituzten faktoreak

Aldaketa horiek soldata nominalari eta beste produkzio-faktore batzuen prezioei dagozkie. Kasu horretan, epe laburreko eskaintza agregatuaren kurba (SA epe lab.) lekualdatzen da. Zenbat eta handiagoa izan soldata nominala, orduan eta handiagoak izango dira enpresen kostuak eta txikiagoak izango da enpresak, prezio-maila bakoitzean, ekoizteko eta eskaintzeko prest dauden kantitatea.


Soldata nominalaren igoerak epe laburreko eskaintza agregatuaren kurba murriztuko du; hots, ezkererantz lekualdatuko du.

Epe laburreko eskaintza agregatuaren kurba lekualdatzen duten faktoreei eskaintzaren perturbazio deitzen zaie. Horietarik ezagun eta garrantzitsuena petrolioaren prezioaren gorakada da.



Eskari agregatua eta eskaintza agregatua

Oreka makroekonomikoa kokatzen da EA eta SA kurbek elkar ebakitzen duten puntuan (O puntuan, hain zuzen ere).





Oreka makroekonomikoa

Eskaria oso handia bada, ekoizpena (eskaintza) enplegu osoko produkzio-maila baino handiagoa izan liteke.

Eskaria oso txikia bada, aldiz, ekoizpena enplegu osokoa baino baxuagoa izan liteke (langabezia eragiten du).


Makroekonomian posible da langabeziarekin oreka izatea, prezioak ez direlako malguak (ezinezkoa da prezio guztiak igo/jaistea). Mikroekonomian ezinezkoa da prezioak malguak direlako. AZTERKETARAKO

Oreka aztertzeko eskari agregatua eta epe laburreko eskaintza erabiltzen dira.



Ziklo ekonomikoa

Gorabehera horiei ziklo ekonomikoko deritze.




Gorabehera ekonomikoaren bi kausa


BPG erreala (Y) enplegu osoko BPGaren (YEO-ren) gaitetik edo azpitik kokatzea eragiten duten bi kausa nagusiak hauek dira:

- eskari agregatuaren gorabeherak
- eskaintza agregatuaren gorabeherak

Eskari agregatuaren gorabeherak edo perturbazioak



Epe laburrean: produktioak eta prezioek gora egiten dute.




Epe luzeko efektua: produktioa enplegu osoko mailara itzultzen da, eta prezioak gehiago igotzen dira.

Kostuak handiagoak direnean Eskaintza Agregatua ezkerrean. Oreka berri bat egongo da eta prezioak handitu.

PETROLIOAREN PREZIOAREN GORAKADA.

Horrek enpresen kostuen igoera eragiten du. Mozkin-maila mantentzeko, enpresak prezioa igotzen saiatzen dira.



Ondorioz, eskaintza agregatuaren kurba gorantz lekualdatzen da. Kasu horretan, ekonomiak aldi berean jasango ditu beheraldi ekonomikoa ($Y \downarrow$), batetik, eta inflazioa ($P \uparrow$), bestetik.

Produkzioaren murrizketa eta prezioen gorakadaren konbinazioari estanflazio deitzen zaio.

Estanflazio= inflazioa + atzeraldia (hazkunde negatiboa).